

2015ean EAEko ospitale publikoetako jarduera ekonomikoa hazi egin zen jarduera kirurgikoarekin, kanpo-kontsultekin eta larrialdiekin batera eta hein berean.


2015eko ospitale-estatistikako datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) 39 ospitale zituen (15 publiko eta 24 pribatu) eta guztira 7.248 ohe; hau da, 1.000 biztanleko 3,3 ohe zeuden. Oheen % 71 sektore publikokoak ziren. Ospitale motei dagokienez, % 72 akutuen ospitaleak ziren, % 7 egonaldiertain eta luzekoak eta % 21 psikiatrikoak.

Akutuen ospitaleetako larrialdi-zerbitzuko jarduera % 4 igo da EAEn.

Asistentzia-arloei dagokienez, larrialdiak, ospitaleetako kanpo-kontsultak eta kirurgia dira gehien hazi direnak. Ospitale barruko kanpo-kontsultak % 3 igo dira; 2014an 3.034.643 izatetik 2015ean 3.124.587 izatera igaro dira. Bestalde, ebakuntza kirurgikoak % 3 hazi dira ospitale publikoetan 2015ean, aldiz, pribatuetan % 4 jaitsi dira.

2015ean guztira 1.164.555 larrialdi erregistratu ziren; akutuen ospitaleetan asistentzia jarduera gehien hazi zen arloetako bat izan zen eta aurreko urtearekin alderatu gero % 4ko hazkundea izan zuen. Larrialdi hauen % 78 sare publikoan artatu ziren.

1. grafikoa Larrialdien eboluzioa akutuen ospitaleetan, titulartasunaren arabera. EAE, 1995-2015




Iturria: Ospitale Estadística. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

Bizkaian erditzeen kopurua ia % 6 jaitsi da.

2015ean % 3 jaitsi zen erditzeen kopurua 2014arekin alderatuz gero. Lurralde historikoei dagokienez, Bizkaian % 6 jaitsi zen, Araban % 2 eta Gipuzkoan, aldiz, % 0,7 igo zen kopuru hori. Guztira 18.757 erditze egon ziren eta % 86 ospitale publikoetan izan ziren. Ospitale publikoetan artatutako erditzeen kopurua % 1 jaitsi zen, aldiz, pribatuetan jaitsiera hori % 13koa izan zen 2014arekin alderatuz gero.

Esan beharra dago 100 erditzeko egin zen zesarea kopurua jaitsi egin zela, nahiz sare publikoan (% 4) nahiz pribatuan (% 7).

2. grafikoa Zesareen indizearen eboluzioa ehun erditzeko, titulartasunaren arabera. EAE, 2010-2015.




Iturria: Ospitale Estadística. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

Nekropsia kopurua % 43 hazi da ospitale publikoetan.

2015ean ospitale publikoetako nekropsien indizea hildako 1.000 laguneko 59koa izan zen, pribatuetan 1.000ko 4koa izan zen arren.

3. grafikoa Hildako mila laguneko nekropsi indizearen eboluzioa, titulartasunaren arabera. EAE, 2010-2015.



Iturria: Ospitale Estatuistica. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila-Eustat

Sarrera ekonomikoak hazi egin ziren nahiz ospitale publikoetan nahiz pribatuetan.

2015ean sarrera ekonomikoak % 9 hazi ziren. Sektore publikoan % 10eko hazkundera egon zen eta pribatuan % 3koa. Hazkunderik handiena akutuen ospitaleetan egon zen, sarrerak % 10 hazi baitziren. Ospitale-gastu osotik (2.490 milioi euro) 2.440 (% 98) ohiko gastuak izan ziren eta 50 (% 2) inbertsioak.

Ospitaleetako jarduera EAEko BPGd-ren % 4 izan zen. Biztanle bakoitzeko gastua azpimarratu beharra dago, 1.146 euro biztanleko, aurreko urtean baino % 5 gehiago.

1. taula. EAEko ospitaleetako zifra ekonomiko nagusien eboluzioa. 2014-2015.

Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)	2014			2015			Incremento %		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Gastu arruntak	2.325.786	1.998.737	327.048	2.440.131	2.108.561	331.570	4,9	5,5	1,4
Inbertsioa	54.744	40.784	13.960	49.880	33.760	16.120	-8,9	-17,2	15,5
Gutzizko gastua	2.380.529	2.039.521	341.008	2.490.011	2.142.321	347.690	4,6	5,0	2,0
Gutzizko sarrera	2.465.188	2.165.722	299.467	2.697.825	2.390.772	307.053	9,4	10,4	2,5

Iturria: Ospitale Estadística. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

2. taula. EAEko ospitaleetako zifra nagusien eboluzioa. 2014-2015.

		Guztira			Publikoak			Pribatuak		
		Aktuak	Egonaldi ertain-luzekoak	Psikiatrikoak	Aktuak	Egonaldi ertain-luzekoak	Psikiatrikoak	Aktuak	Egonaldi ertain-luzekoak	Psikiatrikoak
Baliabideak										
Oheak	2014	5.225	515	1.559	4.220	377	618	1.005	138	941
	2015	5.218	517	1.513	4.224	377	580	994	140	933
	% lgo era	-0,13	0,39	-2,95	0,09	0,00	-6,15	-1,09	1,45	-0,85
Laguntza-jarduera										
Sarrerak	2014	319.853	8.955	2.588	251.684	7.591	1.560	68.169	1.364	1.028
	2015	321.115	9.128	2.610	254.755	7.675	1.586	66.360	1.453	1.024
	% lgo era	0,39	1,93	0,85	1,22	1,11	1,67	-2,65	6,52	-0,39
Egonaldiak	2014	1.391.428	156.155	541.897	1.192.809	115.821	212.104	198.619	40.334	329.793
	2015	1.383.750	165.869	530.181	1.199.280	118.221	204.385	184.470	47.648	325.796
	% lgo era	-0,55	6,22	-2,16	0,54	2,07	-3,64	-7,12	18,13	-1,21
Altak	2014	321.405	8.904	2.701	252.363	7.591	1.578	69.042	1.313	1.123
	2015	320.820	9.142	2.762	254.753	7.675	1.596	66.067	1.467	1.166
	% lgo era	-0,18	2,67	2,26	0,95	1,11	1,14	-4,31	11,73	3,83
Ospitale barneko kanpo-kontsultak	2014	2.963.364	34.690	36.589	2.531.596	13.765	592	431.768	20.925	35.997
	2015	3.050.031	35.142	39.414	2.559.562	13.168	1.637	490.469	21.974	37.777
	% lgo era	2,92	1,30	7,72	1,10	-4,34	176,52	13,60	5,01	4,94
Larrialdiak	2014	1.116.079	6.745	613	882.765	6.745	-	233.314	-	613
	2015	1.164.555	6.861	530	907.426	6.861	-	257.129	-	530
	% lgo era	4,34	1,72	-13,54	2,79	1,72	-	10,21	-	-13,54
Ebaketak	2014	298.122	-	-	223.013	-	-	75.109	-	-
	2015	301.682	-	-	229.805	-	-	71.877	-	-
	% lgo era	1,19	-	-	3,05	-	-	-4,30	-	-
Erditzeak	2014	19.351	-	-	16.377	-	-	2.974	-	-
	2015	18.757	-	-	16.169	-	-	2.588	-	-
	% lgo era	-3,07	-	-	-1,27	-	-	-12,98	-	-
Jarduera ekonomikoa (Mila Euro)										
Guztizko gastua	2014	2.165.000	66.306	149.223	1.881.500	52.822	105.199	283.500	13.485	44.023
	2015	2.268.161	71.710	150.140	1.979.220	58.198	104.903	288.941	13.512	45.237
	% lgo era	4,76	8,15	0,61	5,19	10,18	-0,28	1,92	0,20	2,76
Gastu arruntak	2014	2.113.328	65.670	146.787	1.841.684	52.387	104.666	271.643	13.284	42.121
	2015	2.225.536	67.143	147.453	1.950.133	53.739	104.689	275.402	13.404	42.764
	% lgo era	5,31	2,24	0,45	5,89	2,58	0,02	1,38	0,90	1,53
Inbertsioa	2014	51.673	636	2.435	39.816	435	533	11.857	201	1.902
	2015	42.625	4.567	2.688	29.087	4.459	215	13.539	108	2.473
	% lgo era	-17,51	618,08	10,39	-26,95	925,06	-59,66	14,19	-46,27	30,02
A dierazleak										
Betetze-indizea (%)	2014	73,0	83,1	95,2	77,4	84,2	94,0	54,1	80,1	96,0
	2015	72,7	87,9	96,0	77,8	85,9	96,5	50,8	93,2	95,7
	% lgo era	-0,4	5,8	0,8	0,5	2,0	2,7	-6,1	16,4	-0,3
Batez besteko egonaldia	2014	4,3	17,5	200,6	4,7	15,3	134,4	2,9	30,7	293,7
	2015	4,3	18,1	192,0	4,7	15,4	128,1	2,8	32,5	279,4
	% lgo era	0,0	3,4	-4,3	0,0	0,7	-4,7	-3,4	5,9	-4,9
Txandakatze-indizea	2014	61,5	17,3	1,7	59,8	20,1	2,6	68,7	9,5	1,2
	2015	61,5	17,7	1,8	60,3	20,4	2,8	66,5	10,5	1,2
	% lgo era	0,0	2,3	5,9	0,8	1,5	7,7	-3,2	10,5	0,0
Hilkortasun gordinaren indizea (%)	2014	2,4	24,5	1,3	2,6	22,8	0,6	1,5	34,1	2,2
	2015	2,6	25,2	1,8	2,8	23,7	0,8	1,5	33,1	3,1
	% lgo era	8,3	2,9	38,5	7,7	3,9	33,3	0,0	-2,9	40,9
Nekropsia-indizea (%)	2014	45,6	-	-	52,2	-	-	2,9	-	-
	2015	66,0	-	-	74,0	-	-	6,2	-	-
	% lgo era	44,7	-	-	41,8	-	-	113,8	-	-
Zesarea-indizea (%)	2014	16,3	-	-	13,5	-	-	31,9	-	-
	2015	15,3	-	-	13,0	-	-	29,6	-	-
	% lgo era	-6,1	-	-	-3,7	-	-	-7,2	-	-
Larrialdietako presioa (%)	2014	47,2	55,8	8,4	54,1	65,8	0,3	21,8	-	20,7
	2015	47,6	56,4	7,9	54,0	67,0	0,4	23,3	-	19,5
	% lgo era	0,8	1,1	-6,0	-0,2	1,8	33,3	6,9	-	-5,8
Ospitaleratzeak eragiten dituzten larrialdiak (%)	2014	12,8	68,1	34,7	14,5	68,1	-	6,2	-	34,7
	2015	12,3	68,9	37,7	14,3	68,9	-	5,5	-	37,7
	% lgo era	-3,9	1,2	8,6	-1,4	1,2	-	-11,3	-	8,6

Iturria: Ospitale Estatistika. Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila

Ohar metodologikoa:

- 2013az geroztik ospitale publikoetako informazioa Osakidetzako antolakuntza nagusiko informazio zerbitzuetatik dator; aurrez, informazio hori ospitaleetatik zuzenean jasotzen zen.
- Sektore publikoko jarduera ekonomikoari dagokionez, 2013az geroztik ordura arte kontuan hartzen ez ziren bi partida sartzen hasi dira, amortizazioan dagoen gastuari buruzkoa (sarreraren kontuan duen kontrapartidarekin) eta Osakidetzaren inbertsio estrategikoei buruzkoa.
- 2015ean Osakidetzaren Eibarko ospitale berriaren inbertsioa sartu da.
- Ospitale-estatistika jasotako giza baliabideei eta baliabide fisikoei, asistentzia-jarduerari eta jarduera ekonomikoari buruzko datuak, Arreta Espezializatuari dagozkio.